

## BILBOKO ADIERAZPENA:

### *"Hiri-mugikortasun jasangarriagorantz"*

Bilboko adierazpena zenbait tokiko gobernuk, nazioarteko erakundek, hainbat sektoreetako enpresa pribatuk (automobilgintza, garraioa, energia, teknologia, start-up-ak) eta ezagutza eta ikasketa zentrok partekatzen dituzten konpromisoak batzen dituen nazioarteko agiria da. Konpromiso horiek hartzearen helburua gure hirietan hiri-mugikortasun jasangarriko ereduak ezartzea da.

#### **Helburuak:**

Bilboko Adierazpen honek duen helburu nagusia hau da: hiri-mugikortasun jasangarriagorako ereduak sortzearen alde eragin- eta eraldaketa-ahalmena duten hainbat eragilek partekatzen dituzten konpromisoak batzea. Horrela, garapen global jasangarria sustatzeko nazioarteko esparruan egindako esfortzuekin bat egingo du, **Hiri Agenda Berriarekin, Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH)** eta 2030 Agendarekin **lerrokatuz**.

#### **Konpromisoak:**

Bilboko Adierazpen hau sinatzen dugun erakunde publiko eta pribatuok ekintza hauek burutzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. Tokiko eta lurraldeko gobernuek hiritarren elkarrizketarako eta parte hartzerako guneak sortzeko konpromisoa hartzen dute, hiri-mugikortasunari dagozkion erabakiak hartzea bultzatzeko xedearekin. Sektore pribatuak eta akademikoak eta gizarte zibileko erakundeek gobernantza sistema honetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.
2. Gobernu-organoez mugikortasun eredu berrien garapena ahalbidetu eta ingurumen-jasangarritasuna eta gizarte ongizatea bermatuko duten arau esparruak sustatzeko eta mugikortasun jasangarriaren oinarritutako garapen sozioekonomikoa bultzatzeko konpromisoa hartzen dute. Enpresaren sektoreak esparru horiek betetzeko eta mugikortasun

- jasangarriaren inguruko negozio berriak garatzeko konpromisoa hartzen du.
3. Tokiko gobernuek hiri-planifikazioa mugikortasun jasangarriaren eskura jartzeko eta eraginkorrak, jasangarriak eta inklusiboak diren garraio publikoko sistemen funtzionamendua bermatzeko konpromisoa hartzen dute.
  4. Garraioaren, automobilgintzaren eta energiaren sektoreko enpresek haien diseinu eta ekoizpen prozesuen ikuspegia pixkanaka aldatzeko konpromisoa hartzen dute. Izan ere, helburua horiek ingurumenean gutxieneko eragina duten garraibide jasangarrietara, seguruetara eta eraginkorretara zuzentzea da; bai ordezko erregaien ikuspuntutik eta bai bere floten berrikuntzaren ikuspuntutik ere, isurpen gutxiago sortuz eta hirietan aire-kalitate hobea bermatuz.
  5. Enpresek eta gobernu-organoek energiaren trantsizioa bultzatuko duen ibilbide-orri bat ezartzeko konpromisoa hartzen dute, ingurumenaren arazoak eta errealitate sozioekonomikoa kontutan hartuz. Ildo beretik, mugikortasun elektrikoan jarduten duten eragileek hirietan mugikortasun elektrikoa ezartzeko plan komuna sortzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako karga-azpiegituren eraikuntza erraztuko dute.
  6. Garraioaren, automobilgintzaren eta teknologiaren arloetako enpresek haien I+G+b prozesuak eta teknologia berriak hiri-mugikortasun jasangarriaren zerbitzura jartzeko konpromisoa hartzen dute. Hiritarren datu pertsonalekin edo bereziki babestuta dauden datuekin lan egiten dutenek hiritarren pribatutasuna babesteko konpromisoa hartzen dute. Agintari publikoek, bestalde, konpromiso hori bete dadin jardungo dute; eta, aldi berean, aurrerapen horiek haien Smart City programetan barneratzeko konpromisoa hartzen dute, mugikortasun adimentsua indartuz.
  7. Garraioaren planifikaziorako eta hirien mugikortasunerako politika publikoek genero berdintasuna eta genero-ikuspegia inplementatuko dute. Horretarako, emakumeen parte hartzea sustatuko da garraio seguruagoak eta irisgarriagoak diseinatzeko erabakiak hartzeko prozesuetan.
  8. Hiri-mugikortasun jasangarriaren inguruan lan egiten duten eragileek gizarteratzearen alde lan egingo dute, ahulagoak diren gizarte-taldeek eskaeretan arreta jarriz. Enpresa pribatuek ekintza inklusibo hauen formulazioan eta inplementazioan parte hartuko dute.
  9. Tokiko gobernuek taldeko garraioaren erabilera sustatzeko konpromisoa hartzen dute; eta, horretarako, arrazoizko prezioak eta ordutegi eta lurralde estaldura

egokia bermatuko dute. Hiriek eta gizarteak orokorrean formularik eraginkorrena eta merkeena topatu beharko dute.

10. Tokiko gobernuek hiri-mugikortasunaren esparruan

airearen kutsadura eta hots-kutsadura murrizteko xedea duten ekintzak abiarazteko konpromisoa hartzen dute; eta enpresa pribatuek, bestalde, helburu hauekin bat datozen alternatibak bilatzeko konpromisoa hartzen dute.

Aipatutakoez gain, Bilboko Adierazpen hau sinatzen duten erakunde eta entitateek konpromiso hauek hartzen dituzte: konpromisoak aldiro berrikustekoa eta Sustainable Urban Mobility Congress-eko hurrengo edizioetan beren ekintzen bidez lortutako aurrerapenen berri ematekoa.

Sinatzailek / Atxikitzzaileak